

"JESUS. HURBILKETA HISTORIKOA"

Jose Antonio Pagolaren liburua dala-eta

Jose Antonio Pagola Gipuzkoako Añorgan jaio zan 1937 urtean. Donostiako Seminarioko ikasketak amaitu ondoren.

Erromako Gregoriana Unibertsitatean Teologian Lizentiatua (1962) Erromako Instituto Biblikoan Liburu Santuetan Lizentiatua (1965) Jerusalemgo Eskola Biblikoan Biblia zientzietan Diplomatu (1966). Ogeita bi urtetan Donostia-Gipuzkoako Elizbarrutiko Bikario Orokorra izana Don Jose Maria Setien obispo zala.

Arrezkero, Donostiako Teologia ta Pastoraltzako Institutoko zuzendaria da.

Pagolak Iliburu asko idatzi ditu be re bizitzan, baina orain dala lau bat urte "Jesús, Aproximación histórica" izeneko Iliburu idatzi eban. Geroago, euskeratuta "Jesus. Urbilketa historikoa". Liburu onek erakarpen aundia izan dau eta 80.000 ale baino geiago saldu dira. Zazpi izkuntzetara itzulia izan da.

Liburu onen arrakasta ez jake gustatu Espaniako gotzain tradizionalista batzuei, batez ere, orain artean Tarazonako obispo izan dan Demetrio Fernandezi. Obispo onek 2007ko Gabonetan karta pastoral baten esan deutse bere abade eta eliztarrei "Pagolak azaltzen dauan Jesus ez dala Elizaren fedeko Jesus". Bere ustez, Pagolaren Iliburuak Arrio izeneko obispo erejearen bideak jarraitzen ei-ditu. Au da, Pagolaren Iliburuan agertzen dan Jesus, gizon arrigarri eta zoragarria dala ... baina ez Jainko, ez Jainkoaren Seme.

Iritzi onen kontra ainbat eta ainbat teologilari trebek euren iritziak emon ditue Pagolaren Iliburuaren alde. Ona hemen izen batzuk:

- _ -Gianfranco Ravasi kardinala, Vaticanoko Kultura saileko lendakaria.
- Rikardo Blazquez, Bilboko obispo izan zana
- Rafael Agirre, Deustuko Unibertsitatekoa
- Felix Placer, Gasteizko Teologia Fakultatekoa
- Jabier Vitoria, Deustuko Unibertsitatekoa
- Jabier Oñate, Bilboko Teologia eta Pastoraliza Institutokoa
- Jose Ramon Scheifler, Deustuko Unibertsitateko katedratikoa
- Manuel Unciti, apaiz eta kazetaria.

Alan eta guztiz ere Demetrio Fernandezek (gaur Cordobako obispoak) eta Españaiko Konferentzia Episkopaleko beste batzuk eurenarekin jarraitzen da be Pagolaren kontra, naiz eta Pagolak 50 orrialdeko idatzi batez erantzun "Tarazonako Taldeari".

Orduan D. Juan Maria Uriarte, Donostiako gotzainak parte artu eban gauzak bideratzeko. Pagolak, apaltasunik andienaz aurkeztu eban bere liburua aztertua izan zedin. Don Juan Maria Uriartek bilatu zituan Iiburua aztertzeko pertsona egokiak: Santiago Guijarro, entzute andiko biblista; Santiago del Cura, Nazioarteko Teologia Komisiñoko kidea; eta Gotzai teologilari ospetsu bato Pertsona oneek ontzat artuak izan ziran aldi aretan Konferentzia Episkopaleko zuzendaria zan Don Rikardo Blazquez-en eritziz.

Liburua azertu ondoren, azterlariak euren oneritzia emon eben Iiburuaren alde, argi eta garbi jarriaz liburuak ez eukala kristau fedearen ez Elizearen oituren kontrako ezertxo ere. Oneritzi baikor honegaz, Don Juan Maria Uriartek bere "nihil obstat et imprimatur" deritxon zigilua, au da, "ez dauko ezetariko eragozpenik eta inprimatu daitela", ezarri eutsan Iiburuari. Eta olan inprimatu zan bederatzigarren edizioa.

Pagolaren liburua zazpi-zortzi izkuntzatarara itzulita dago eta italieraz itzulita dagoana Vaticano ondoko Via de la Konziliazoneko liburu dendetan salgai aurkitzen da. Baina Iiburu au, zorionez, Gianfranco Ravasi kardinalaren eskuetara eldu zan. Ravasi jauna biblista jatorra izanez gainera, Vatikanoko Kultur Kontseiluko leendakaria da; baita Vatikanoko Arkeologia Sakratuko Akademiako leendakaria ere. Pagolaren liburua irakurrita gero, Italiako "11 sole 24 ore" deritxon egunkarian artikulu bat idatzi eban joan dan abenduan izen onegaz: "Jesus Historian bilatu". Artikulu onetan auxe dino: "Liburu au dala Biblia arazoetan tekniku ez dan irakurlea gidatzeko biderik onena", au da, "il modo piu trasparente per guidare il lettore non técnico".

Olan eta guztiz ere, Konferentzia Episkopaleko gotzain batzuk, Demetrio Fernandez eta Martinez Camino bozeramalea buru ziralara, P.P .C. editorialari agindu eutsoen Pagolaren Iiburua, "nihil obstat" zigilua daroana, ain zuzen, ez zabaltzeko eta zabalduta egozan aleak batzeko.

Jokabide lotsagari au ikusirik gure Bilboko gotzain izan zan Don Ricardo Blazquezek onan esaten eban: "Liburu batek gotzainaren "nihil obstat eta imprimatur" zigilua bada roa Konferentzia Episkopala ez da inor liburu ori debekatzeko. Erroma bakarrik sartu daiteke arazo orretan".

Joan zan urteko Ostegun Santuan, Bilboko Mailona auzoko abadeen erresidentziara joan nintzan hango abade lagunekin bazkaltzera. Eldu nintzanean ango arduradunak esan eustan Don Rikardo gotzaina ere etorriko zala bere azken despedidak egiten ebilela-ta. Ederto, nire aldetik. Bazkaria amaitu gendunean, baten-batek, ez naz gogoratzen nork, Jose Antonio Pagolaren liburuari buruz bere eritzia emoteko eskatu eutsan. Eta Don Rikardok onan erantzun eutson:

"Jose Antonio Pagola pertsona jatorra da eta abade lez jokabide txalogarria izan dauana. Teolojilari trebea, zintzoa eta apala. Baten batzuen zalantzak ikusirik bereala aurkeztu eban bere liburuaz aztertzeko eta eduki leike ezan utsak zuzentzeko. Liburu biblista eta teolojilari jakintsuak aztertu ondoren, Don Juan Maria Uriarte, Donostiako gotzainak "nihil obstat et imprimatur" zigilua ezarri eutson. Pagolak idatzi dauan liburu oso ona da, argia eta lagungarria Jesus historia aldetik ezagutzeko eta obeto ezagutuaz maiteago izateko. Liburu onek ez dauko ezetariko hutsik eta gitxiago herejia usainik".

Berbok esandakoan, nik eskerrak emon neutsazan olako iritzi argi eta garbiak emon euskuzalako eztabaidan ebilen liburu onen gainean eta Pagolaren izen ona bere lekuan ipini euskulako, "baina, gauza bat Don Ricardo, esan neutsan nik, zuk esan dozuzan edo antzerako deklarazioak Donostiako Don Jose Ignazio Munilla obispoak egin bear leukez, azken baten, Pagola bere eliztarra dalako". Nik berba onek esanaz batera gure Don Rikardo Blazquez gorri-gorri jarri zan, altsa zan eta, agur eginda, joan zan.

Gora-beera guztiok igarota gero, Konferentzia Episkopaleko obisporik integristenak ezin izan dabe ikusi liburu onek daukan erakarpen indarra eta, azken baten, Erromara bialdu dabe liburu au Fedearen Kongregazioan aztertua eta prozesatua izan daiten. Fedearen Kongregazioa izenak orain gozo emoten dau, baina hauxe da leenago deitzen zan Santo Ofizio bildurgarria eta leenago Sagrada Congregacion de la Romana y Universal Inquisición izen bildurgarriagoa.

Nik ez dakit zeren bila dabilzan obispo-inkisidore barriok: Egiaren atzetik dabiltz ala pertsona berezi batzuk zapaldu nabirik? Nazaretako Jesusen Jainkotasuna nabi dabe argi ipini ala Jose Antonio Pagola, Don Juan Maria Uriarte eta Don Jose Maria Setien pikotara bialdu? Edozelan ere obispo inkisidore barriok Jesusen aldiko eskriba, eta fariseoen antzera jokutzen dabe, zoritxarrez.

Garitaonandia' tar Jesus Begoñako
Santutegiko Erretorea